

---

## **BALOREZKO PROPOSAMENA**

Gaur egun, plastikoa edozer egiteko erabiltzen da, material merkea delako eta oso erabilgarria delako. Edozer produktuk darama plastikoa eta ez gara ohartzen bai pertsonentzat, bai animalientzat eta baita naturarentzat ere oso txarra dela. Hori dela eta, gure kontsumoari etekina ateratzeko eginiko proiektua da.

Bezeroek gure produktua aukeratzeko, hainbat arrazoi antzeman ditugu:

- Pantaila eta koloreengatik jendea erakarriko du, gure ongizatea bermatzen duen bakarra delako. Banakoa kontzientziatuko duela ziurtatuko duenez, oso erabilgarria izango da.
- Biztanleria guztiari zuzenduta egongo da. Edonork erabiltzeko gai izango da.
- Funtzionamendu erraza izango du: hiru zulo izango ditu, bakoitza material jakin bat bertan botatzeko.
- Nahiz eta mota hauetako makinak jada existitzen diren, adibidez Alemanian, ez dira behar bezala publikatu eta ez dira bezero askorengana iritsi, beraz gure bezero posibleentzat ideia oso berritzailea izango da. Gure makina zabaltzeko *marketing* programa zehatza jarraituko dugu (geroago zehaztuko dugun bezala) sare sozialen bidez. Horrela, espero dugu MALE makinak arrakasta handiagoa izatea, lehenago merkaturatu direnak baino.
- Gure balioa kuantitatiboa nahiz kualitatiboa izango da; prezio onean salduko dugu (9999,95€) eta sarrera ekonomikoak edozein izanda ere denentzat eskuragarria izango da.
- Azkenik, legeak diotenez, ontzia erosterakoan herritarrak zenbateko bat ordaindu behar du produktuarengatik. Beraz, proiektu honen bitartez zenbateko hau itzultzeko aukera emango zaio, noski, soilik ontzia itzultzen badu egoera perfektuan (bestela makinak uko egiten dio).